

**KOMIKIA****Izenburua:** 'Sua itzali, hiria piztu'.**Egilea:** Iñaki Martiarena, *Mattin*.**Orrialde kopurua:** 33 orrialde.**Argitaletxea:** Donostia Sutan 1813-2013 elkarte.**Iñaki Martiarena, 'Mattin'**

MARRAZKILARIA

# «Herri xehearen sufrikarioa islatu dut, gu ere jatorri berekoak baikara»


**A**maitzear da dagoeneko 2013. urtea. Donostiarrentzat arrunt berezia izan da. Izan ere, berrehun urte bete dira Frantziako tropak hiriarri su eman eta suntsitu zuenetik. Hainbat dokumentazio lan argitaratu dira gertaera horren eta ondoren egín zen hiriaren berreraikitzearen inguruan. Berrietako bat Iñaki Martiarena *Mattin* marrazkilaria egíniko komikia da, *Sua itzali, hiria piztu* izenekoa, gertaera hura haur eta nerabeei modu ludikoan azaltzeko.

**Istoriaok narratzaile berezia du komikian.**

Lehenik eta behin, esan behar da hau Donostia Sutan elkartearen eskariz egina dela; 1813ko suteaz geroztik berrehun urte pasatu diren honetan, azaldu zidaten haur eta nerabeentzako komiki bat egín nahi zutela. Gidoia neuk egín nuen, eta otu zitzaidan, istorioaren haria lotzeko, egokia litzateke-ela narratzaile bat izatea. Urgull mendia bereziki kutuna dut, eta hor, hain zuzen ere, desagertzeko arriskuan dagoen sugandila bat bizi da. Horregatik, egokia iruditu zitzaidan narratzailea sugandila hori bera izatea.

**Istoriaok baditu beste bi protagonista ere: Eider eta Manex.**

Irakurlea, istorioari jarraitzearekin batera, protagonistekin identifika-



tzea bilatu dut. Haurrak dira etorkizuna, eta horregatik otu zitzaidan, hain zuzen ere, neska eta mutil bat izatea irakurleak istorioan murgiltzeko elementuak: Manex eta Eider. Istoriaok ez du halako karga intelektualik; helburu nagusia da 1813ko sutea eta hiriaren berreraikitzea jendarteratzea.

**Suteaz eta berreraikitzeaz gain, zer ikasiko dute irakurleek?**

Herri xeheak bizi izan zuen sufrika-

ria islatu dut, gu ere jatorri xehekoak baikara. Gainera, neska-mutilei erakutsi nahi diet orduko jende xeheak zein lanbide zituen, bide batez, lanbide horien duintasuna aldarrikatzeko.

**Gertaera bera lazgarria izan zen, baina dramatismoa leundu duzu.**

Istoria atsegínaren bitartez barneratzea bilatu dut, batez ere. Azken batean, irakurketa atsegína izatea baita helburua: hasieratik

oso garbi eduki dut hori. Gertaerak berak izan zuen karga dramatikoa kendu, arindu, eta, ahal den neurrian, goxotasuna bilatuz. Betiere gertaera dramatiko hori ukatu gabe, baina aurrera begira. Iraganari lotuta geratu gabe, aurrera egín behar da beti bizitzan, eta hori ere bada komiki honen mezuaren zati bat.

**Zer-nolako lana izan da historiako gertakizun bat komiki bihurtzea?**

Egia esan, nire ohiko grafismoa mantendu dut; ez dut neure burua behartuta sentitu. Gainera, elkartekoekin etengabeko komunikazioa izan dut, eta, alde horretatik, oso aberatsa izan da. Agian, dagoen informazio uholde horri galbahea pasatzea izan da lanik zailena: sobera itota gaude informazioarekin, eta ez nuen irakurlea datu historiko eta militarrekin nekatu nahi. Zerbait arina egín nahi nuen, baina arinkerian erori gabe.

**Arin-arin irakurtzen da komikia.**

Egia esan, hitzaren eta irudien arteko oreka bilatu dut, arreta berezia eskainiz zeregin horri. Hitzak ez nituen gehiegi kargatu nahi. Orri asko izan arren, oso edizio lan apala izan du komikiak: ez du tapaki gogorrik eta antzekorik, gehienbat, lehen aipatu dudan jendarteratzeko helburu hori dela eta.

**Nola deskribatuko zenuke komikia?**

Nik esango nuke pintxo bat edo zizka-mizka bat dela. Eta, beharbada, irakurlea gósez uzten duen pintxoa, gainera.

**Komiki zintak egitera ohituago zaude honelako komikiaren aldean, ezta?**

Bai, nire ibilbide profesionalan jauzi bat izan da, egia esan. Donostian eza gutzen nautenek, batez ere, nire zintak eza gutzen dituzte; *Sua itzali, hiria piztu* jauzi bat da, konturatzerako, 33 orriko lana aterra baita.